

PRENTSA OHARRA

2015 / 02 / 04

FAGOR INDUSTRIALEK GARBITEGI INDUSTRIALEKO KATALOGO BERRIA AURKEZTEN DU

- *Argitalpen berri honek garbitegi katalogo osoa berrizatzen du, garbigailuak eta lehorgailuak, tolesteko makinak edo kalandrak.*
- *Produktu berriak errendimendu eta produktibitate handiena emateko diseinatuta daude, eraginkortasun energetikoa eta denbora aurrezkoa kontuan hartuz.*

[Fagor Industrialek](#) ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbitegien sektorearentzako soluzio integralak eskaintzen dituen enpresa espainiar aitzindariak, garbitegi industrialerako atera duen katalogo berria aurkezten du, garbitzeko, lehortzeko, tolesteko eta lisatzeko makina desberdin ugari eskainiz.

Argitalpen berri honekin, Fagor Industrialek kalitatezko aurrerapauso bat egin du bere garbitegirako portfolio osoan eta guztiz berrizatu ditu bere produktuak merkatuko eskakizunei erantzuteko helburuarekin.

Guztiz berriztatutako katalogoa

- **Garbigailuak:** azken belaunaldiko modelok teknologia berriena eta kalitate handietako osagarriak eta materialak nahasten dituzte. *Touch Plus Control* programatzailer berria sartu dugu azken berrikuntza gisa. Sektorea guztiz aldatu duen programatzailer da, erabiltzaileari programazioaren maneia errazteko balio duena eta garbitegiari ezaugarri eta kudeaketa aukera berriak ematen dizkiona. Garbigailuen gamak zentrifugazio altua eta estandarra ditu eta merkatuan dagoen gama osatuenetako bat bihurtzen du ezaugarri honek. Garbigailu guztiak dituzte *Wet Cleaning* eta ura, energia eta produktu kimikoak aurrezteko sistemak, eraginkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua izanik gamaren aurkezpen gutun onenetarikoak.
- **Lehorgailuak:** lehorgailu berriek izugarizko iraultza suposatu dute esparru honetan. Diseinu berriei esker lehen zeuden modeloekin baino eraginkortasun handiagoa lortzen da eta teknologikoki, merkatuan dauden makina aurreratuenean artean kokatzen dira. Aipatzekoak dira *Heat Pump – "High Efficiency"* eta *Green Evolution Plus* lehorgailuak, %40ko eta %60ko energia aurrezten baitute hurrenez hurren. Energia gehiago aprobetxatzeko eta lehortzeko denbora murrizteko osagarri eta prestazio ugari gehitu zaizkie modelo berriei, hala nola, *(Dry)*, lehortze sistema adimendua hezetasun sentsorearekin, atearen beira bikoitza, erradial-axial-aurreko aireztatze sistema (*Total Flow*), aireak berriro zirkulatzeko sistema adimendua (*Green Flow System*) edo isolamendu termikoa, beste askoren artean.
- **Osasun-hesia duten garbigailuak:** makina mota hauek ospitaletan, egoitzetan, famazia industrietan, industria kosmetiko eta nuklearretan erabiltzeko pentsatuta daude, beste batzuen artean. Sendoak dira, zentrifugatzek orduan abiadura handia hartzen dute eta erraz instalatzen dira, 16tik 100 kg-ko gaitasuna dutelarik. Garbigailu mota hauek duten osasun-hesia bi espazioren artean kokatzen da komunikazio-kanal bakar bezala. Arropa garbia eta zikinaren kontaktua saihesten du eta, beraz, berriro kutsatzea ekiditen du, edozein kutsadura mota izanik ere. *Touch Plus Control* programagailu berria, ukimen-pantaila eta prestazio aurreratuekin, aurretik kargatzen diren garbigailuarekin bateratu da eta malgutasun handia eskaintzen dio erabiltzaileari. Gainera, beste pantaila bat du garbitegiko gune garbian, garbitze-prozesua ikusi ahal izateko.
- **Horma-kalandrak:** Fagor Industrialek horma-kalandren gama berria aurkezten du, lan-zabalera handiagoarekin 50 cm-ko arrabola duten gaman. Gainera, %25eko energia kontsumoaren murrizketa eskaintzen du kalandra gama guztian eta produktibitatearen %25eko hazkundea, gas bidezko modeloetan, erregailu erradiatzailer berriari esker. Horma-lisagailuen gama berria ezin hobea da jatetxeak, hotel txikiak edo hostatuak bezalako establezimenduetako jantzi-lau kantitate txikiak lisatzeko. Espazio txikietan kokatu daitezke eta ia ez dute instalazio beharrik (korrante elektrikoa besterik ez), ez baitute ateratze edo konexiorik behar.



ONNERA GROUP



Together we evolve

www.fagorindustrial.com

- **Kalandra konpaktuak:** denbora aurrezte eta eraginkortasun energetiko maximoarekin errendimendu eta produktibitate handiena emateko diseinatuta daude. Gas bidezko erretzaille erradialak dituzten modelo beriek energjaren eraginkortasuna eta produktibitatea areagotzen duten %25batean, erregailu atmosferikoa duten gasezko kalandrekin alderatuz. Gainera, espazioa aurrezte ahalbidetzen dute ere, 290 kg/orduko lisatzera iritsi daitezkeelako 27 metro karratu baino gutxiagoko espazio batean. Beste berrikuntza aipagarrienetako bat 3.300ko arrabola berria da. Honi esker 3.300 x 3.300 mm.-rainoko jantziak lisatu eta tolestu daitezke.

Konpromisoa eraginkortasun energetikoarekin

Fagor Industrialeko garbitegi-produktu berriek konpromiso handia dute ingurumenarekin. Bira asko ematen dituzten garbigailu guztiek dute *Auto Weight* izeneko sistema eraginkorra erabiltzeko aukera. Honi esker %30eraino aurreztu daiteke, ur, garbigailu eta energia kontsumoak automatikoki doitu, sartutako eta garbigailuak automatikoki neurtutako arropa kargaren arabera. Garbigailu guztiek dute hiru ur tanga kudeatzeko aukera ere. Azken urberitzeetako urak tanga hauetara eramaten dira bigarren hustubidetik eta ur hori ondoren egingo diren aurre-garbiketara eta garbiketara zikloetan erabiltzeko gordeko da. Honekin, %70rainoko ur aurrezki lor daiteke.

Lehorgailuei dagokionez, Fagor Industrialek aire beroa berriro zirkulatzeko sistema iraultzailea sortu du (*Green flow System*). Sistema honen bidez lurrun irteeratik ateratzen den aire beroa danborrean sartzen da berriro. Modu honetan aurrezki energetiko maximoa lortzeaz gain, danborreko aire-fluxua areagotzen da. Fagorrek patentatutako sistema berritzaile hau, berriro erabiltzen den aire fluxua hezetasunaren arabera erregulatzean datza. Horretarako patentatutako beste bi sistemen beharra dago, lehorgailu adimendua (*iDRY*) eta aire fluxu osoaren sistema (*Total Flow*,) hain zuzen ere.

Ezaugarri horiekin guztiekin lehorgailu gama hau merkatuko eraginkorrena da.

Kalandrak errendimendu eta produktibitate gehiago emateko diseinatuta daude benetan aipagarriak diren eraginkortasun energetikoa eta denbora aurrezkiarekin. Kalandra hauen funtzionamendua oso erraza da eta ia ez dute mantenu kosturik ondorioztatzen.

"Argitalpen berri honekin Fagor Industrialek aurrerapauso handia egin du garbitegi katalogo osoan, ez bakarrik diseinuari dagokionez. Oso osorik berritatu ditugu gure produktuak, prestazio berriekin eta beti bezala, eraginkortasun energetikoarenganako eta ingurumenarenganako dugun errespetu-konpromisoarekin jarraituz" adierazi du Ion Sotil, ONNERA Group-eko Corporate Product Managerra.

Fagor Industriali buruz

Fagor Industrial, Mondragon taldearen barruan dagoen kooperatiba, espezialista da ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbitegien sektorerako soluzioak eskaintzen, bertan fabrikatzen den produktu gama berritzaile zabalari esker. Fagor Industrial nazioarteko ONNERA Group enpresa-taldearen barruan dago, 9 fabrika ditu mundu osoan banatuta eta 1.700 langilek egiten dute lan bertan.

Informazio gehiagorako:

Juan Sanchidrián
prensa_fagorindustrial@fagorindustrial.com
Tel.: 660 342 041



ONNERA GROUP



Together we evolve

www.fagorindustrial.com